

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRA

Gasteizen lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2016eko ekitaldiko laguntza deialdiaren barruan

2016ko irailaren 2an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2016an lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdia eta oinarriak.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 60.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

1. oinarria. Xedea eta aplikazio-eremua

Gasteizen ohiko lan-merkatuko lanaldi osoko nahiz partzialeko kontratazioa sustatu eta erraztera zuzendutako laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek —norgehiagoka baliatuko da horretarako—, eta, bereziki, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeena eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonena.

2. oinarria. Entitate onuradunen betebeharrak

Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek, ondasun-erkidegoek nahiz beste edonolako ekonomia-unitate edo ondare bereziekin jaso ahal izango dituzte programa honetako diru-laguntzak, baita nortasun juridiko propiorik izan gabe ere, baldin eta diru-laguntza ematea dakarten jarduerak gauzatzerik badute:

a) Diruz laguntzeko moduko jarduerak garatzea, zuzenean, Gasteizko udalerriko lantoki batean.

b) Zerga- eta lan-betebeharrak egunean izatea, baita Gasteizko Udalarekikoak ere.

c) Administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukuratik apartatua ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren menpe ere, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu arrazoiengatik diskriminaziotzat jotzen diren egintzen ondorio direnak barne.

d) Beste diru-laguntzarik ez jaso izana, pertsona bera kontratatzeke, Gasteizko enpresei lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren 2015eko deialdian.

e) Enpresa onuradunek laguntza programa honetan parte hartzen duten denbora osoan bete beharko dira baldintza horiek.

Salbuespenak: ezingo dira laguntza hauetaz baliatu:

a) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko debeku egoeraren batean dauden pertsona edo entitateak.

b) Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta haiekin loturarik duten edo haien mendeko diren entitateak.

c) Aldi baterako lanerako enpresak, beste enpresa bati aldi baterako langileak kontratatzeari dagokionez.

d) Ezingo da diru-laguntzarik jaso Gasteizko Udalak nahiz beraren enpresa edo erakunde autonomoek esleitutako kontratuak gauzatzeko egindako lan-kontratazioengatik.

e) Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren — martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia— 2.1 artikuluan aipatzen dituen lan-harreman bereziak.

f) Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudian ezarritako minimis erregimenaren mendeko laguntzak direnez, ezin zaizkie sektore hauetako enpresei eman:

— Arrantza eta nekazaritza, Kontseiluaren 104/2000 Erregelamenduaren (EE) arabera.

— Tratatu I. eranskineko zerrendan agertzen diren nekazaritza-produktuen produkzio primarioa.

— Beste herrialde batzuetarako edo estatu kideetarako esportazioekin erlazionatutako jarduerak, baldin eta laguntza banaketa-sare bat osatu eta funtzionatzearekin lotuta badago, edo esportazio jarduerarekin lotutako beste esplotazio gastu batzuekin.

— Ikatza, 1407/2002 zenbakia duen Erregelamenduan (EE) definitutakoaren arabera.

3. oinarria. Kontratatzen diren pertsonen betekizunak

Kontratatu direnek baldintza hauek bete beharko dituzte, indarrean dagoen legediak agintzen dituen gain:

— Diru-laguntzaren xede den pertsona kontratatu aurreko sei hilabeteetan gutxienez Gasteizko udalerrian errolatuta egon izana, eta laguntza eman arte errolatuta jarraitzea.

— Langabezia egotea, hau da, kontratatu aurretik Gizarte Segurantzaren inongo erregimenetan izena emanda ez egotea, eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea, kontratatzeke unea baino lehenago.

— Ez da diru-laguntzarik emango enpresaren titulartasunaren ondorengotzatik edo forma juridikoaren aldaketatik sortzen diren hasierako kontratazioetarako.

— Ez da diru-laguntzarik emango enpresaburuen ezkontideak, ondorengoak edo bigarren mailara arteko —hori barne— odol- edo ezkontza-ahaidetasuna duten senideak —edo horien parekoak, izatezko bikoteen kasuan— kontratatzen direlarik, edo enpresen kontrola duten, zuzendaritza-karguetan diharduten nahiz administrazio-organoetako kide direnenak.

— Ez dira diruz lagunduko laguntza eskatzen duten sozietateetan partaidetzak dituzten edo kontratazioaren aurreko urtean izan dituzten pertsonen dagozkien kontratazioak.

— Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegu sustapenerako tokiko ekintzetarako laguntza-deialdian adierazten diren betebeharrak betetze aldera, kontratazio jakin batzuk lehenetsiko dira, halako moduan non diruz laguntzen diren kontratu guztien artetik gutxienez ehuneko 40 emakumeei eginak izan beharko baitira, eta ehuneko 15, aldiz, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden 55 urtetik gorako langabeei eginak.

— Aldi baterako kontratuak deialditik baztertzea: ez da diru-laguntzarik emango kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan enpresa berean zerbitzuak eskaini dituzten pertsonak kontratatzeagatik, edozein izanik ere kontratuaren edo hitzarmenaren izaera.

4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

Baldintza hauek bete beharko dituzte lan-kontratazioek, diru-laguntza jasotzekotan:

— Lan-kontratazioa egitea, oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betez.

— Kontratazioek enplegu sorkuntza garbia ekarri beharko dute kontratazioa diruz laguntzen zaien pertsonak bertaratu aurreko hiru hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean — diru-laguntzak hartzen duen aldian enpresak duen batez besteko plantilla aintzat harturik—.

— Kontratuak gutxienez sei (6) hilabeteko iraupena izan beharko dute, eta lanaldi osoa edo gutxienez ehuneko 50eko lanaldi partziala, eta edozein kontratu-mota erabili ahal izango da, prestakuntza- eta ikasketa-kontratuak izan ezik.

— Diru-laguntzaren iraupena gehienez sei hilabetekoa izango da, kontratu bakoitzeko.

— 2016ko ekainaren 16tik 2017ko maiatzaren 31ra arteko aldian sartu beharko du beharko du diruz laguntzen den kontratuaren indarraldiak. Nolanahi ere, kontratazioak diruz laguntzekoa den epea baino luzeagoak izan daitezke, baina halakoetan ez da diru-laguntzarik jasoko geroko epe horri dagozkion kostuengatik.

— Enpresa bakoitzak gehienez bi lan-kontratuengatik jasoko du diru-laguntza, gizareratze-enpresen kasuan izan ezik — horien kasuan, gehienez hiru kontratuengatik—.

— Kasuan kasu galdatu edo diruz lagundutako gutxienerako aldia burutu aurretik iraungitzen badira lan-kontratuak, itzuli egin beharko da emandako diru-laguntza, salbu eta iraungitze hori enpresa kontratatzailearen borondatez egokitu ez bada, eta hala egiaztatzen bada, behar diren agiriak aurkeztuta, hamar eguneko epean, kontratuari Gizarte Segurantzaren baja ematen zaion egunetik. Halakoetan, kontratuaren benetako iraupenaren arabera murriztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa. Horrez gain, norberaren borondatez egokitu ez den baja justifikatu ondoren — 15 egun baliouduneko epean, hura gertatu zenetik—, gelditzen den diruz lagundutako aldirako beste lan-kontratu bat formalizatzen bada — deialdiko baldintzak eta diru-laguntza eman zeneko hasierako kontratuaren ezaugarriak errespetatuz—, izenpetutako lehen eta bigarren kontratuen iraupenaren arabera izango da diru-laguntzaren murrizketa. Delako bigarren kontratuak behar baino lehenago iraungiz gero, ez da onartuko emandako diru-laguntza gerora izenpetzen diren hirugarren edo hurrengo kontratuei aplikatzea.

— Pertsona bat kontratatzeagatik diru-laguntza bakarria emango da, eskabidea enpresa edo autonomo ezberdinek egiten badute ere; alegia, diru-laguntza bakarria emango da, eta lehentasun-hurrenkeran.

5. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauen arabera balioetsiko dira diru-laguntza deialdira aurkeztzen diren kontratuak, puntuaziorik handienetik txikienera arteko lehentasun-hurrenkerara ezartzeko:

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	PUNTUAZIOA
Kontratatutako pertsonen ezaugarriak:	
— 55 urtetik gorakoak	50
— Emakumea	40
— 45 eta 54 urte bitartekoak	30
— Luzaroko langabeak, kontratatu aurreko 18 hilabeteetan Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda egon direnak, eta, aldi horretan, gutxienez 12 hilabetez lanik gabe	20
— Diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaile titularrak	15
— Gizareratze-enpresen inklusio-ibilbideetan parte hartzen duten pertsonak eta ohiko lan-merkatuan integratzeko egoeran daudenak	15
— Lehen enplegua lortzen duten 35 urtetik beherakoak	15
Lanaldi mota:	
— Osoa	30
— Partziala	10

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	PUNTUAZIOA
Kontratuaren iraupena:	
— Mugarik gabekoa	30
— 12 hilabete edo gehiago	10
Gehieneko puntuazioa	200

6. oinarria. Zenbatekoa

1. Gehienez 6.000,00 euroko laguntza, sei hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratazioa bada, lanaldiaren edo lanean egindako denboraren arabera izango da diru-laguntza. Laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako ehuneko 75etik gorakoa, kontratu-amaierako kalte-ordainak barne.

2. Talde hauetakoren bateko pertsonak kontratatzen badira:

- diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaileak,
- lehen enplegua lortzen duten 35 urtetik beherakoak. Lehen enplegutzat joko da hiru hilabetetik beherako lan-esperientzia izanez gero.
- luzaroko langabeak. Luzaroko langabetzat joko dira kontratatu aurreko gutxienez 18 hilabeteetan Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egon direnak, baldin eta aldi horretan gutxienez 12 hilabetez lanik gabe egon badira.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 9.000,00 eurokoa izango da, sei hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratazioa bada, lanaldiaren edo lanean egindako denboraren arabera izango da diru-laguntza. Kasu horretan, laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako ehuneko 100etik gorakoa, kontratu-amaierako kalte-ordainak barne.

7. oinarria. Ordaintzeko modua

Deialdia ebatzi ondoren, ordainketa bakarrean ordainduko dira laguntzak, kontratazioa egin dela eta laguntza emateko galdatutako betebeharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, laguntza ematea ekarri duten baldintzak egiaztatzeko ezar litezkeen bestelako kontrolak gorabehera.

8. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoa gorabehera, betebeharrak izango dituzte onuradunek:

- Laguntza zein jardueratarako eman den, hura gauzatu dela egiaztatzea, eta laguntza emateko ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzea.
- Gasteizko Udalaren egiaztatze ekintzen eta bertako kontu-hartzaile nagusiaren finantza-kontrolerako ekintzen mende jartzea, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.
- Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Gasteizko Udalari jakinaraztea.
- Zerga-betebeharrak bete eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzea.
- Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailari beharrezkotzat jotzen duen informazio eta agiri osagarri oro ematea, deialdi honen baitan jasotzen dituzten diru-laguntzak ulertu eta ebaluatzeko.

– Udal laguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo diru-laguntzarik jasoz gero, organo emaileari jakinaraztea.

– Enplegu sorkuntza garbia egiaztatzea, kontratazioa diruz laguntzen zaien pertsonak bertaratu aurreko hiru hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean —diru-laguntzak hartzen duen aldian enpresak duen batez besteko plantilla aintzat harturik—.

9. oinarria. Aurrekontu-zuzkidura

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren 2016ko ekitaldiko 2016/08 23 2411 47123 “Kontrataziorako laguntzak - Eskualdeko Enplegu Plan” partidaren kontura finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak. Milioi bat eta berrehun mila eurokoa (1.200.000,00 euro) da partida horren zuzkidura.

10. oinarria. Beste laguntza eta diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna, eta SPKLTBari lotutako udal honen esleipenekikoa

Deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak bateraezinak izango dira kontzeptu berarengatik eta helburu berarekin beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek ematen dituzten diru-laguntza edo laguntzekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu. Orobat izango dira bateraezinak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lehen Aukera 2016 programarekin.

11. oinarria. Nahitaezko agiriak

1. Eskabidea egitean aurkeztu beharreko agiriak:

– Eskabide-orria, eta zinpeko aitortpena, oinarri hauen I. eta II. eranskinetan ageri den ereduaren arabera —atal guztiak bete beharko dira, nahitaez—.

2. Eskabideak balioetsi eta diruz laguntzen den aldia bukatu ondoren —hala galdatzen delarik— aurkeztu beharreko justifikazio-agiriak:

Gobernu Batzarrak 2015eko urriaren 16an onetsi zuen Gasteizko Udalak kontratazio gizar-tearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibide berria aplikatuko denez, justifikazio-agiriak paper ehuneko 100 birziklatuan aurkeztea gomendatzen da —kontsumitu ondoko edukia gutxienez ehuneko 65ekoa—, bi aldeetatik eta zuri-beltzean inprimatuta —kolorea ezinbestekoa denean bakarrik erabiliko da—, eta koadernatzea ahalik eta urriena izatea, plastikozko azalik gabea, errazago birziklatzeko.

2.1. Kontratututako pertsona egiaztatzeko agiriak:

– Kontratatuaren nortasun-agiriaren edo AIZren kopia

– Errolda-ziurtagiri historikoa

– Kontratututako pertsonaren lan-bizitzaren txostena, kontratazioa egin denez geroztiko datarekin.

– Lanbiden izena emanda egondako aldien ziurtagiria, kontratua hasi aurreko azken 18 hilabeteetako.

– Kontratutua talde berezietakoren batekoa izanez gero, hori egiaztatzeko behar diren agiriak.

2.2. Entitate eskatzailea egiaztatu eta identifikatzeko agiriak:

Pertsona autonomoen, sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan:

– IFZ edo AIZren fotokopia.

– Gizarte Segurantzako autonomoen erregimeneko altaren fotokopia, edo Gizarte Segurantzako egungo egoeraren ziurtagiria.

– Jarduera Foru Ogasunean alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratuaren fotokopia.

– Behar bezala erregistratutako eraketa-kontratuaren fotokopia, sozietate zibil eta ondasun-erkidegoen kasuan.

Pertsona juridikoa bada:

- Enpresaren IFKaren fotokopia
- Enpresaren eraketa-eskrituren fotokopia
- Ordezkaritza-ahalmenen fotokopia
- Legezko ordezkariaren IFZ edo AIZren fotokopia.

Bi kasuetan:

– Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetako batez besteko plantillari buruzkoa.

– Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, diruz lagundutako kontratazio-aldiko batez besteko plantillari buruzkoa.

– Lan-zentroaren Ekonomi Jardueren gaineko Zergako alta.

– TC1 eta TC2 agiriak eta dagozkien ordainketa-egiazttagiriak, diru-laguntzak hartzen duen aldiari dagozkionak.

– Kontratazioaren bukaerako oroitidazkia, non soldata-kostua adierazi beharko baita, diruz lagundutako aldiari guztira ordaindua eta enpresaren Gizarte Segurantzako kostua berezita.

2.3. Lan-kontratu egiaztatzeke agiriak:

- Lan-kontratuaren kopia, bi aldeek sinatua
- Diruz lagundutako aldiari dagozkion nominak, behar bezala sinatuta, eta ordainketa-egiazttagiriak.

12. oinarria. Eskabideak aurkeztea

Oinarri hauetan arautzen diren laguntzak eskuratzeko eskabideak eta zinpeko aitortpena inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dira (I. eta II. eranskinak) —herritarrei laguntzeko bulegoetan eskuratu ahal izango da, edo www.vitoria-gasteiz.org web-orrian eskaintzen den eskabide-orria inprimatu—, Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak kudeatu eta balioetsi ditzan, eta, hartara, diru-laguntzak esleitu ditzan.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako modua baliatu ahal izango da horretarako.

Enpresa edo pertsona interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

Oinarri hauek ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2016ko azaroaren 9an bukatuko.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eduki beharko dute eskatzaileek tramitazioak iraun bitartean, operatibo, hartara aurkezten duten dokumentazioan aurkitzen diren akatsak zuzendu ahal izateko, edo eskatzen diren laguntzak arin eta eraginkortasunez, modu legalean, ebatzi ahal izateko beharrezko den beste edozein errekerimendu helarazi ahal izateko.

Kreditua agortzen ez bada, eskabideak aurkezteko epe hori amaitzen delarik beste epe bat zabaldu ahal izango da —ALHAOn argitaratuko da—.

13. oinarria. Akatsak zuzentzea

Diru-laguntza eskabideek ez badituzte oinarri hauetan xedatutako baldintzak betetzen, edo bertan galdatutako agiriak ez bazaizkie eranstean, eskatzaileei hamar eguneko epea emango zaie akats eta okerrak konpondu edo falta diren agiriak aurkezteko —Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua ildotik—, eta ohartaraziko zaie hala egin ezean eskaera bertan behera utzitzat joko dela eta besterik gabe artxibatuko, eta lege beraren 42.1 artikuluan aurreikusitako ondorioak izango dituela horrek.

14. oinarria. Prozedura

Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Aztertze-, balioztatze-, hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratuko da horretarako, saileko zuzendariak eta Prestakuntza, Enplegu eta Ekonomia Sozialaren Zerbitzuko, Merkataritza Zerbitzuko eta Enpresa Zerbitzuko buruek osatua.

Proposamen teknikoaren ildotik eman edo ukatuko dira laguntzak. Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 eta 16. artikuluetan eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127.ean xedatutakoaren ildotik, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diru-laguntzak ematearen ingurukoak ebazteko eskumena.

Ebazpen horrek agortu egingo du administrazio-bidea, eta beraren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, bi hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.6.b) eta 60. artikuluetan xedatutakoaren ildotik, ALHAOn eta Gasteizko Udalaren iragarki-taula digitalean emango da argitara laguntza-deialdi honen ebazpena, banakako jakinarazpenen ordezkari.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 63. artikulua ildotik, lortutako puntuazioaren arabera ordenatutako itzarote-zerrenda sortuko da, oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete arren —deialdian finkatutako gehienezko kreditua agortu delako— onetsi ez diren eskabideekin. Hartara, soberakin egokitz gero —dela enpresa onuradunek diru-laguntzei uko egiten dietelako, dela ezarritako baldintzak betetzen ez dituztelako—, beste deialdirik egin beharrik gabe erabaki ahal izango du organo emaileak itzarote-zerrendako lehenari eta hurrengoei ematea diru-laguntza —puntuazio hurrenkeraren arabera—, libre geratutako kreditua agortu arte.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak emateko elkarren arteko lehiaren prozedura baliatuko da, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Nolanahi ere, deialdi honetarako dagoen kreditua oinarrietan finkatutako betebeharrak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko aski egokitz gero, bazter utziko da horien arteko lehentasun-hurrenkeraren irizpidea, eta guztiak suertatuko dira onuradun.

Aitzitik, dagoen kreditua aski ez bada, diru-laguntzak emateko alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak —bosgarren oinarrian ezarritako balioespen-irizpideak aintzat harturik—, hartara lehentasun-hurrenkerara ezartze aldera, eta puntuaziorik handienak lortzen dituzten eskabideei esleituko zaizkie diru-laguntzak.

Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, balioesteko atalean guztira lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko, hurrenkera honen arabera:

1. 55 urtetik gorakoak
2. Emakumeak
3. 45 eta 54 urte bitartekoak
4. Gizarteratze-enpresen inklusio-ibilbideetan parte hartzen duten pertsonak eta ohiko lan-merkatuan integratzeko egoeran daudenak
5. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak
6. Luzaroko langabeak
7. Mugarik gabeko kontratua
8. Lanaldi osoa
9. 12 hilabete edo gehiagoko kontratua
10. 6 hilabetetik 12ra bitarteko kontratua

Berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideak Gasteizko Udaleko sarrera-erregistroan aurkeztu zireneko datak eta orduak kontuan izanik.

Baldin eta geratzen den saldoa ez bada aski baliagarri dagoen kreditua agortzen duen diru-laguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua aplikatuko zaio horri.

Lortzen den puntuazioaren arabera ezartzen den lehentasun-hurrenkera jarraituz emango da laguntza. Eskabideei oinarri hauetan eskatzen den dokumentazio guztia eransten zaielarik finkatuko da horien arteko lehentasun-hurrenkera.

Diru-laguntza eskabideek ez badituzte oinarri hauetan galdatzen diren betebeharrak betetzen, edo ez bazaie eransten behar den dokumentazioa, hamar eguneko epea emango zaie interes-dunei akats eta okerrak konpondu edo falta diren agiriak aurkezteko —Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua ildotik—, eta ohartaraziko zaie hala egin ezean eskaera bertan behera utzitzat joko dela eta besterik gabe artxibatuko, eta lege beraren 42.1 artikuluan aurreikusitako ondorioak izango dituela horrek.

Erabilgarri dagoen aurrekontua izango da prozeduretako bakoitzean gehienez emango den zenbatekoa, eta baliatzen ez diren diru-kopuruak hurrengo bateko ebazpenetara aldatuko dira, aurrekontua agortu arte. Ebazpenean bertan adierazi beharko du laguntzak ematen dituen organoak zenbateko diru-kopurua aldatuko den hurrengora.

15. oinarria. Diru-laguntzen berri ematea

ALHAOn eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da aldi horretan emandako diru-laguntzen zerrenda, pertsona nahiz enpresa onuradunak eta zenbatekoak adierazten direlarik.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren diru-laguntza eta laguntzak Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak.

16. oinarria. Diru-laguntzak aldatzea

Diru-laguntzak emateko kontuan izandako baldintzak aldatzeak eman zireneko ebazpena aldatzea ekarri ahal izango du berekin, nahiz eta, nolana ere, oinarri hauetan ezarritako baldintzetara moldatu beharko den aldakuntza hori.

17. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Gasteizko Udalak, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko suertatzen diren kontrol eta ebaluazio ekintzak burutu ahal izango ditu, eta eskatzen dien informazio osagarria eman beharko diote enpresa onuradunek.

18. oinarria. Laguntzak itzultzea

Jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira, baita diru-laguntza ordaintzen denetik sortutako interes legalak ere, laguntzen onuradun diren pertsona edo enpresek oinarri hauetan, emate ebazpenean nahiz aplikagarri suertatzen diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak urratzen badituzte; guztia ere, dena delako urraketaren ondorioz Udalak bidera litzakeen bestelako ekintzak gorabehera.

Dagozkien ondorio legetarako, itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarraztat joko dira.

Kudeaketa-, kontrol- edo ikuskatze-lanetan diru-laguntza modu ezegokian eskuratu dela ondorioztatzen bada, edo oker erabiltzen ari dela, hala jasoko da dossierrean eta, horrenbestez, beharrezko diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

Oro har, baldin eta —enpresari edo kontratatuari egoztekoa den arrazoiren batengatik— betebeharren bat betetzen ez bada eta horrek Lanbidek Udalarari emandako diru-laguntza murriztea badakar berekin, laguntzaren hartzaileari jasanaraziko zaio hori, laguntza proportzio berean gutxituz.

Diru-laguntzarik ematekotan, edo, kasuan-kasu, ordaintzekotan, alde zuzenetik amaitu egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak eta haren erakunde autonomoek nahiz Gasteizko Udalak berak emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzak itzularazteko prozedurak eta arlo horretako prozedura zigortzaileak.

19. oinarria. Itzularazteko prozedura

1. Laguntza itzularazteko dosierra abiarazi eta, behar izanez gero, hala galdatzeko erabakia hartzeko eskumena hura eman zuen organoak izango du.

2. Ofizioz nahiz organo eskudunak edo interesdunak eskatuta abiarazi ahal izango da prozedura.

3. Horretarako probidentzia ematen delarik, dirua itzularazteko prozedura abiarazi dela jakinaraziko dio Udalak diru-laguntzaren onuradun den pertsona edo enpresari, baita arrazoiak zein izan diren ere, eta entzunaldia eskainiko, egokitzat dituen alegazioak egin eta bidezki jotzen dituen agiri edo justifikazioak aurkez ditzan, 15 eguneko epean.

4. Alegazioak jasotzen direlarik nahiz halakorik jaso gabe igarotzen delarik epea, ebazpen arrazoitua emango du Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak, eta aurkez daitezkeen errekurtsoen berri adieraziko. Laguntza itzularazteko prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da.

5. Ebazpenean urraketaren bat izan dela adierazten bada, galdutzat joko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez, oker jasotako dirua Udal Diruzaintzari itzultzeko obligazioa izango da; bi hilabeteko epean egin beharko da hori, jakinarazpena jasotzen denetik. Borondatezko aldiko epeztat joko da epe hori.

6. Aurreikusitako epean itzultzen ez bada, premiamendu prozedurari ekingo zaio, aplikagarri diren lege-araudiei jarraiki.

7. Itzularazteko prozedura administrazio arau-hauste baten ondorioz abiarazia bada, organo eskudunari jakinaraziko zaio, aplikagarri den prozedura zigortzaileari ekin diezaion.

20. oinarria. Ordezko erregimena

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, baita arau-hauste, zigor eta ordezko erantzukizunei dagokienez ere, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantza —2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 5. zk.—, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren araudia onetsi zeneko uz-tailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aintzat hartuko dira.

21. oinarria. Indarrean jartzea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean laguntzak emateko deialdia eta oinarri hauek.

22. oinarria. Konfidentzialtasun-klausula

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze al-dera, Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Enpleguaren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela —Gasteizko Udalaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek—. Deialdia ebatzi ondoren, Gasteizko Udalaren iragarki-taulan nahiz web-orrian argitaratu ahal izango dira emaitzak. Ho-rren gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, herritarrei laguntzeko bulegoetara jo beharko dute parte-hartzaileek.

I. eta II. eranskinak: Eskabide-orriak

<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/87/90/68790.pdf>

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 2an

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren

Saileko Administrazio Zerbitzuko burua

LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI